



Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

90. zenbakia

Data 2013-05-14

57 orria

7 Udal Administrazioa

ARETXABALETAKO UDALA

Aretxabaletako udalak 2013. urterako ezarri dituen diru laguntza programen deialdi irekia.

ARETXABALETAKO UDALA

Aretxabaletako udalak 2013. urterako ezarri dituen diru laguntza programen deialdi irekia.

ARETXABALETAKO UDALERRIAN ERROLDATUTA DAUDEN PERTSONA FISIKOEL, EUSKARA IKASTEKO EDO EUSKARAREN NORMALIZAZIOAREKIN ZERIKUSIA DUTEN IKASTAROAK EGITEKO, DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Xedea.

Deialdi honen xedea da 2013. urtean Aretxabaletako udalerrian erroldaturik dauden pertsona fisikoek, euskara ikasteko eta Euskaraz edo Euskararen Normalizazioarekin zerikusia duten ikastaroak egiteko baldintzak arautzea.

2. Onuradunak.

Deialdi honen bidez arautzen diren diru-laguntzak ondorengo hauek jaso ahal izango dituzte: Aretxabaletako udalerrian erroldaturik dauden pertsona fisikoek, euskara ikasteko eta Euskaraz edo Euskararen Normalizazioarekin zerikusia duten ikastaroak egiteko.

3. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak.

— UEUk eskainitako ikastaroak.

— EHU-UPVk eskainitako ikastaroak, beti ere euskararekin eta euskararen normalizazioarekin zerikusia dutenean.

— HIK HASIk antolatzen dituen ikastaroak.

— Beste erakunde batzuek antolatzen dituzten ikastaroak, beti ere euskararekin eta euskararen normalizazioarekin zerikusia dutenean.

— Aretxabaletako Udal Euskaltegian izena eman eta talderik osatu ez delako inguruetako beste euskaltegi batean egindako ikastaroak.

— Urtean zehar egin daitezkeen barnetegiak edota ikastaro trinkoak.

4. Bete beharreko baldintzak.

Baldintza hauek bete behar dira dirulaguntza jasotzeko:

- a) Aretxabaletan eroldaturik egotea, gutxienez ikastaroa egin bitartean.
- b) Aretxabaletako udal euskaltegian izena ematea (Euskara Ikasteko ikastaroei dagokienez) eta talderik ez dagoelako beste euskaltegiren batera joan behar izatea.
- c) Dirulaguntza lortzeko, gutxienez %90eko asistentzia izatea ikasleak ohiko ikastaroetan eta %100 gainontzeko ikastaroetan, edozein izanda ere ikastaro antolatzailea.
- d) Barnetegiatarako eta beste erakunde batzuek antolatu eta euskararen normalizazioarekin zerikusia duten ikastaroetarako diru laguntza lortzeko ikaslea edo langabetua izatea.
- e) Euskalduntze alfabetatzearekin zerikusia duten ikastaroek salbu, gainontzeko guztiek euskararekin edo euskararen normalizazioarekin zerikusia izatea.

5. Aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabide ereduarekin batera (**I. Eranskina**), agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

- a) Matrikularen ordainagiria.
- b) Edozein kasutan ikastaroaren Erakunde antolatzailearen agiria, eskatzailearen asistentzia (%tan) adieraziz.
- d) Barnetegien eta euskararen normalizazioarekin zerikusia duten ikastaroak antolatzen dituzten erakundeen kasuan, ikasle agiria edo INEMek emandako langabetu agiria.

6. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkeztu ahal izango dira, egindako ikastaroa bukatu eta hurrengo hiru hilabetetan.

7. Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Eman beharreko diru laguntzak kalkulatzeko, kontuan hartuko dira irizpide hauek:

1. Ohiko ikastaroak.

Ikasleak ordaindutako matrikula prezioaren %80 izango da bekaren zenbatekoa.

2. Barnetegiak eta ikastaro trinkoak.

Barnetegiko ikastaroen eta ikastaro trinkoen kasuan, matrikularen %70a izango da bekaren zenbatekoa.

3. Gainontzeko ikastaroetarako.

Udalak hala iritziz gero, beste irizpide batzuk erabili ahal izango ditu, bekaren zenbatekoa erabakitzeko, ikasleak egindako ikastaroaren ezaugarriak kontuan izanik; edozein kasutan ere ikastaroaren kostuaren %70a

izango da bekaren zenbatekoa (egoitza eta otorduak ez daude barne).

8. Aurrekontua.

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa diru laguntzen zenbatekoa 500 €koa da eta ondorengo aurrekontu partidatik bideratuko dira: «Euskara Diru-laguntzak: 1.0205.481.455.10.01.2013.».

9. Dirulaguntzak justifikatzea.

Deialdi honetako 5. artikuluan eskatzen diren agirien bidez justifikatuko dira diru laguntzak; diru laguntza eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak dira.

10. Ordaintzeko era eta epeak.

Diru laguntza emango da ordainketa bakar baten bidez, justifikatu eta gero, behin diru laguntza ematea erabaki eta hilabeteko epean.

HELBIDE FISKALA ARETXABALETAN DAUKATEN PERTSONA FISIKO ETA JURIDIKOEI, BAITA BERE JARDUERA EKONOMIKOA ARETXABALETAKO UDALERRIAN DAUDEN LOKALETAN EGITEN DUTENEI ERE, ERROTULUAK, IRUDI KORPORATIBOA, TRESNA INFORMATIKOAK ETA WEB ORRIA EUSKARAZ JARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Xedea.

Deialdi honen xedea da 2013. urtean bere egoitzetako errotuluak, irudi korporatiboa tresna informatikoak eta web orria euskaraz oso-osorik edo ele bietan jartzen dituzten entitateei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. Onuradunak.

Oinarri hauen bidez arautzen diren dirulaguntzak eskatu ditzakete Helbide fiskala Aretxabaletan daukaten pertsona fisiko edo juridikoek, baita bere jarduera ekonomikoa Aretxabaletako udalerrian dauden lokaletan egiten dutenek ere.

Diru-laguntza hauen aplikazio eremutik kanpo geratuko dira:

a) Helburua euskara normalizatzea duten entitateak, hau da, euskara elkarteak, euskaltegiak, ikastolak eta entitate publikoak.

b) Enpresa handiak eta 50 langiletik gorako entitateak.

c) Aurreko hizkian aipatzen diren enpresa edo entitatekoak diren enpresak, haien kapital soziala %50etik gorakoa denean.

3. Bete beharreko baldintzak.

Baldintza hauek bete behar dira dirulaguntza jasotzeko:

— Edozein kasutan eta kasu guztietarako:

a) Testua zuzen egongo da idatzita euskaraz; horretarako aurrez euskara-zerbitzuak gainbegiratzea gomendatzen da.

b) Diru-laguntza jaso behar duen ekintza 2013an egindakoa izango da.

Errotuluen eta irudi korporatiboaren kasuetan:

a) Errotuluko testua izen berezia bakarrik bada ez da emango diru-laguntzarik. Errotuluak jardueraren berri eman beharko du diru-laguntza jaso ahal izateko.

b) Testua euskaraz bakarrik edo euskaraz eta gaztelaniaz izatea. Testua euskaraz eta gaztelaniaz bada, euskarari eman behar zaio lehentasuna.

c) Establezimendu berrien errotuluentzat nahiz berritu diren errotuluentzat eska daiteke diru-laguntza.

d) Errotulua jartzeko udal-baimena jaso beharko da aurrez.

— Web gune eta blogen kasuetan:

a) Aretxabaletan izatea helbide fiskala.

b) Web gunea edo bloga euskaraz bakarrik edota euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan edukitzea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean, euskarazko testuaren portzentajea gainerako hizkuntzen antzekoa izango da, behintzat.

— Tresna informatikoen kasuetan:

a) Aretxabaletan izatea helbide fiskala.

b) Tresna informatikoa (Ordenagailu edo kobratzeko makina) euskaraz bakarrik edota euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan edukitzea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean, euskarazko testuaren portzentajea gainerako hizkuntzen antzekoa izango da, behintzat.

4. Aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabide ereduarekin batera (**I. Eranskina**), agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

— Kasu guztietan:

a) Egindako gastuen jatorrizko fakturak.

b) Oinarri-arau orokorretako 7. artikuluan datorren moduan, egiaztatzea egunean dituela Administrazioako zerga obligazioak.

— Errotuluen kasuetan:

a) Errotuluaren izena jasotzen duen agiria edo argazkia.

b) Udalak emandako hirigintza lizentzia.

— Irudi korporatiboaren kasuetan:

a) Entitateak egin edo berritutako elementu bakoitzaren ale bat.

— Web gune eta blogen kasuetan:

a) Web gune edo blogaren helbidea.

— Tresna informatikoen kasuetan:

a) Tresna informatikoa jarri den establezimenduaren edo elkartearen izena eta helbidea, eta tresnak ematen duen agiri baten ale bat.

5. Eskabideak aurkezteko epea.

2013 urtean burututako ekintzen eskabideak abenduaren 31 baino lehenago aurkeztu behar dira. Hala ere, dirulaguntzaren xedea dena azaroaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten denean epea hilabete batean luzatuko da, 2014ko urtarrilaren 31ra arte. Ondorio horietarako, eta beste dokumentazio baten faltan, kontsideratuko da faktura egiteko eguna bat datorrela faktura emateko egunarekin. Nolanahi ere, eskaria ezer egin aurretik egitea komeni da, testua hizkuntzaren aldetik zuzena dela ziurtatzeko.

6. Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Eman beharreko diru-laguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Errotuluen kasuan.

a) Errotulua euskaraz bakarrik doanean, kostuaren %80 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 180 €.

b) Errotulua euskaraz eta gaztelaniaz doanean, kostuaren %40 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 90 €. Edozelan ere, kokalekuan, neurrian edota intentsitatean lehentasuna izan beharko du euskarazko testuak.

2. Irudi korporatiboaren kasuan.

2.1. Kontzeptua:

Programa honetan aurreikusten diren diru-laguntzak aplikatzeko, irudi korporatiboaren elementutzat joko ditu Udalak:

a) Gutun-azalak.

b) Orri idazpurudunak.

c) Bisita txartelak.

d) Kartak eta menuak.

e) Entitatea identifikatzeko zigilua.

f) Albarana, fakturak.

g) Ibilgailuak errotulatzeko.

2.2. Zenbatekoa:

a) Irudi korporatiboa euskaraz bakarrik doanean, kostuaren %80 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 120 €-ko diru-laguntza izango du.

b) Irudi korporatiboa euskaraz eta gaztelaniaz doanean, diru-laguntza izango da kostuaren %40, eta gehienez ere 60 €-ko diru-laguntza izango du.

3. Web gune, blog eta tresna informatikoen kasuetan.

a) Web orria edo bloga euskaraz bakarrik eginez gero, kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 450 €-ko diru-laguntza izango du. Tresna informatikoa euskara hutsean jartzen duenak kostuaren %50a izango du eta gehienez ere 800 €.

b) Web orria edo bloga euskaraz eta gaztelaniaz eginez gero, edota euskaraz eta beste hizkuntza batean kostuaren %30 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 280 €-ko diru-laguntza izango du. Tresna informatikoa euskaraz edo euskaraz eta beste hizkuntza batean jartzen duenak kostuaren %30eko diru-laguntza izango du eta gehienez ere 500€.

7. Aurrekontua.

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa diru laguntzen zenbatekoa 1000 €koa da eta ondorengo aurrekontu partidatik bideratuko dira: «Euskara Diru-laguntzak: 1.0205.481.455.10.01.2013».

8. Dirulaguntzak justifikatzea.

Deialdi honetako 4. artikuluan eskatzen diren agirien bidez justifikatuko dira diru laguntzak; diru laguntza eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak dira.

9. Ordaintzeko era eta epeak.

Diru laguntza emango da ordainketa bakar baten bidez, justifikatu eta gero, behin diru laguntza ematea erabaki eta hilabeteko epean.

Epe barruan eskabideak aurkezteko interesa duten guztiek, baldin eta deialdi honetan eskatutakoa betetzen dutela egiaztatzen badute, dagozkien diru laguntzak eskuratu ahal izango dituzte, aurrekontuetako baliabideak agortzen ez diren bitartean.

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEN DUTEN ELKARTEEI ETA ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. Xedea.

Deialdi honen xedea da irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateei dirulaguntzak emateko baldintzak erregulatzea, 2013eko urtean euskararen erabilera sustatzeko planak antolatzeak. Diruz lagundu daitezkeen

programak izan ahalko dira aldizkakoak edota noizean behin egiten diren ekintzak.

2. Onuradunak.

Duten jarduera deialdi honetako helburuekin bat etorri eta herrian eragina duten, irabazi asmorik gabeko entitateek nahiz eta egoitza Aretxabaletan ez izan.

Deialdi honetako oinarri-arau orokorretako 4. artikuluan eskatzen diren baldintzak bete behar dituzte onuradunek, dagokion erregistro publikoan izena emateko beharrari dagokionez.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira euskara normalizatzea helburu ez duten programak edo ekintzak, edota bere izaeragatik edo xedeagatik Udalaren beste diru laguntza deialdietan/ atalen batean berariaz edo egokiago sar daitezkeen programak edo ekintzak.

3. Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

Eskabide ereduarekin batera (**I. Eranskina**), agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

— 2013 urtean zehar aurrera eramango duen proiektua.

4. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.

Euskara zerbitzuak izapidetuko ditu eskabideak eta Tokiko Gobernu Batzarrean erabakiko dira.

5. Eskabideak baloratzeko irizpideak.

Eman beharreko dirulaguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Proposatutako egitarauaren ezaugarriak, alderdi hauek kontuan hartuta:

a.1) Garatzen den arloari egitarauak egiten dion ekarpena.

a.2) Eskatzaileak proposatutakoen antzeko jarduerarik ez izatea.

a.3) Garatuko den egitarauak zenbat herritarri eragiten dion, haren giza proiektzioa, beste entitate, hiritar eta kultura eragile batzuen inplikazio maila.

a.4) Proposatutako egitarauaren ibilbidea eta errotzea.

b) Entitate eskatzailearen ezaugarriak, alderdi hauek kontuan hartuta:

b.1) Entitate eskatzailearen ibilbidea.

b.2) Entitate eskatzailearen jarraitasuna eta egonkortasuna.

b.3) Udalaren ekimenetan parte hartzaile izatea.

b.4) Antzeko entitaterik ez egotea.

b.5) Entitate eskatzailearen eta bere giza taldeen dedikazioa.

c) Entitatearen finantza baliabideak; bere baliabideen, beste diru-laguntzen eta aurkeztutako gastuen aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna.

Horietaz gain ezaugarri hauek hobetsi eta positiboki baloratuko dira:

— Beraien jarduerak burutzeko Udalaren ekarpenaz gain, beste finantziazio bide batzuk bilatzeko ahaleginak egiten dituzten elkarteak.

— Hainbat jarduera, proiektu edo ekintza beste elkarte batzuekin elkarlanean burutzea eta herriari benetan ekarpen aberats eta anitza egiten diotenak.

— Berdintasun irizpidea kontutan hartzea, emakume eta gizonen berdintasunean eragin eta sustatuz, bereziki, emakumeen eskubideak bermatzen diren heinean.

— Belaunaldien arteko ibilbidea eta transmisioa bermatzen dutenak eta elkartearen bizi iraupena ziurtatzen saiatzen direnak, bereziki beraien lana herrian zabaltzen eta hedatzen dutenei (sozializazioa, jende berriaren inplikazioa, ...).

— Ingurumen ikuspegia baloratuko da bereziki baliabide, bitarteko eta egitasmoetan berrerabilpena eta birziklatze irizpidea kontuan izaten dutenei (kartelak, ekintzak ...).

6. Aurrekontua.

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa diru laguntzen zenbatekoa 2.350 €koa da eta ondorengo aurrekontu partidatik bideratuko dira: «Euskara Diru-laguntzak: 1.0205.481.455.10.01.2013».

7. Dirulaguntzak justifikatzea.

Deialdi honetako 3. artikuluan eskatzen diren agirien bidez justifikatuko dira diru laguntzak; diru laguntza eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak dira.